



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



SASOIKAKO LANAREN ARRETARAKO IV. PLAN INTEGRALA 2017-2020

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila buru duen Erakundearteko Mahaiak egina eta onetsia

2017ko uztailaren 10a

AURKIBIDEA

SARRERA

TOC

B) EKINTZAK GARATZEA

I. ERANSKINA, Planean jasotako jarduerak eta ekimenak: Arduradunak, erakundeak, finantzaketa eta adierazleak	21
II. ERANSKINA, Erakundeak eta aurrekontuan ekintzak ordaintzera bideratutako zenbatekoak	32

Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala eta EAEko Sasoikako Lanaren Erakundearteko Mahaia

Giza talde horrek arazo multzo bat planteatzen du, eta beharrezkoa da arazo horiei geure gizartetik irtenbideak bilatzea, edo behintzat hobekuntzak, oinarritzkoak diren gaietan, hala nola: bizitokia, adingabeen hezkuntza, gizarteratzea, kontratazio-baldintzak... Horrek guztiak Arartekoa bultzatu zuen, 1995az geroztik, urtero-urtero gaiaren jarraipena egitera.

Arabian sasoikako lanean dihardutenen arazoen jarraipen-lanaren emaitza gisa, 2002ko azaroaren 27an Arartekoak txosten bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean; txosten hark gai honi buruzko informazio sakabanatuak biltzea eta sasoikako langileen eta haien arazoen ikuspegi global bat eskaintzea zuen helburu, irtenbideak bilatze aldera.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko abenduaren 12an egindako osoko bilkuran, sasoikako langileen arretarako plan integral bat egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, bai eta erakundearteko mahai bat sortzeko. Aipatutako Planean jasotako estrategia eta helburu guztiak koordinatzea izango litzateke Mahai horren ardura.

Apirilaren 29ko 97/2003 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoikako Lanari buruzko Erakundearteko Mahaia sortu eta arautu zen. Mahai horretan zerikusia zuten administrazio eta erakunde guztiek egon behar zuten, erakundearteko koordinazio handiagoa lortze aldera.

Aipatutako 97/2003 Dekretuaren 3. artikuluaekin bat etorrita, funtzio hauek dagozkio Mahai horri:

- a) Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala prestatzea.
- b) Plan Integralean jasotako ekintzak koordinatu eta sustatzea.
- c) Sasoikako langileei buruz indarrean den araudia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- d) Nekazaritzako sasoikako langileen gizarte- eta lan-baldintzen jarraipen etengabea egitea eta, beharrezkoa den kasuetarako, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- e) Helburu berdintsuak dituzten foroekiko harremanak ezartzea.
- f) Sasoikako langileen populazioarekin lotura duten gainerako funtzioak.

Mahai horrek, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila buru zela, Sasoikako Lanaren Arretarako I. Plan Integrala egin eta onartu zuen, 2004- 2007 aldirako, 2004ko ekainaren 30ean; horren ostean, honako hauek etorri ziren: Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Integrala, 2008- 2012 aldirako, 2007ko abenduaren 19an onetsia, eta 2013-2016 aldirako III. Plana, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila buru zuen Erakundearteko Mahaiak 2013ko apirilaren 17an prestatu eta onetsia.

III. Planaren indarraldia bukatuta eta gauzatutako ekimenei buruzko ebaluazioa eginda, Plan horretan jasotako ekimen askori jarraipena emateko, egiteko geratu diren ekimen batzuei ekiteko eta ekimen berriak abiatzeko beharrezana ikusi da.

Dokumentu hau Sasoikako Lanaren Arretarako 2017-2020 Plan Integrala da. Plan Integralaren helburu nagusia sasoikako lanaren inguruan sortutako beharrezaneiei erantzuna emango dieten ekimenak era koherente eta koordinatu batean planifikatzea da.

Aurreko planetan erabilitako oinarritzko eskemari jarraitzen dio IV. Plan honen egiturari (plan horiek, berriz, Arartekoaren «Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan» txostenean daude oinarriturik). Egitura horrek hiru atal handi hauek ditu:

- ❖ Kontratazio-baldintzen hobekuntza.
- ❖ Bizilekuak.
- ❖ Sasoikako langileei loturiko adingabeei arreta.

SASOIKAKO LANAREN ARRETARAKO 2013-2016 III. PLAN INTEGRALAREN EBALUAZIOA

II. Plana osatzen duten lan-arloetan aurreikusitako ekintzak xehe aztertuta, labur-labur eta ondorio gisa, honako iritzi hauek adierazi behar ditugu:

1. KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

- Sasoikako langileen kontratazioa erraztea
- Indarrean dauden arauak betetzen diren egiaztatzeko ikuskapenak areagotzea
- Lanbide-heziketa sustatzea
- Sasoikako lanaren nekazaritza-hitzarmena negoziatzea
- Informazio-bulegoa kudeatzea

Nekazaritzako Sasoikako Lanaren Proiektuak aurrera jarraitu du, kanpaina bakoitzaren eta, zehazki, mahats-bilketaren berezitasunek baldintzatuta, ordea.

Eguraldiatik konplikatu izan zen 2013ko kanpaina. Programan nekazaritzako 333 ustiatetik parte hartu zuten (% 9,18ko igoera), eta aldi baterako 914 pertsona aritu ziren lanean, gehienak marokoarrak; horietatik 6 baino ez ziren emakumeak. Aurreko kanpainaren aldean, % 36ko igoera egon da. Mahatsa biltzeko garaian bildotsaren festa izan zenez, aurretik aritutako marokoar asko ez ziren etorri, eta 256 langile berri egon ziren horregatik, gehienak Saharaz hegoaldekoak; hori zela eta, langileak biltzeko ahalegin berezia egin behar izan zen. Oso lagungarria izan zen informazio-bulegoarekin koordinazio ona izatea eta lana eskatzen zuten taldeei buruzko informazioa trukitzea.

Bizilekuei dagokienez, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka egon zen, mahats-bilketan izan ezik, plazak falta izan baitziren orduan, eguraldi txarragatik aldi berean egin beharra egon zelako.

Aurreko urtean bildotsaren festa zelako etorri ez ziren ohiko taldeak berriro aritu ziren lanean 2014ko kanpainan; horrek agerian uzten du sasoikako langileen taldean kulturak zer eragin duen. Nekazaritzako 359 ustiatetik izan ziren (% 7,8 gehiago), eta aldi baterako 1.010 langile (2 emakume); % 10,5 gehiago, alegia. Oro har, langileak nabarmen gehiago izan ziren udaberriko kimaketan, eta apur bat gutxiago mahats-bilketan.

Kanpaina horretan agerian gelditu zen bizilekuen gaia landu beharra zegoela, muga jo baitzuen; bestelako aukerak bilatu behar ziren, beraz, baimendu eta erregistratutako plazen kopurua handitzeko, baita eskualdean are gehiago zabaltzeko ere. Arabako Errioxako herri batzuetan proiektuak indar urria edo ezdeusa zuen; hori zela eta, horren zergatia aztertzeke beharra ikusi zen, eta bizilekuak egon zitezkeela antzemanen gero, horiek lotzen saiatzekoa.

2015eko kanpainan sasoikako 1.095 pertsonak (3 emakume) parte hartu zuten, aurrekoan baino % 8,42 gehiago, hortaz, eta nekazaritzako 400 ustiatetik izan ziren (% 11,42 gehiago).

2016ko kanpainan sasoikako 1.175 pertsonak parte hartu dute; % 9,60 gehiago. Nekazaritzako ustiatetien kopuruak ere egin du gora, % 3,28 zehazki (409). Mahats-bilketan nabarmen handitu da bildutako kiloekoa; horrek, halere, ez du ekarri egiazko lanaldiak nabarmen handitzea, eta kontratatutako pertsonen produktibitatea aurten askoz handiagoa izan dela pentsatu behar da, beraz.

Plana indarrean izan den aldian honako **esperientzia berri** hauek gauzatu dira:

- Arabako Errioxan bizi diren emakume atzeritarren talde bat inausketa-lanetarako gizarteratzen saiatzea. Horretarako, inausketa-ikastaroa antolatu zen 2013an eta 2014an, eta nekazarien sentsibilizazioa ere landu zen ondoren kontrata zitzaten errazteko. Prestakuntzaren deialdiak ez zuen espero genuen arrakasta izan, senarrek beraiek eragotzi baitzuten, emakumeek ekimenarekin bat egin zezaten oztopatu zutelako.
- UAGAk emakume marokoar bat itzultzaile kontratatzea kontratatutako sasoikako langileei lagundu eta eskubideak azaltzeko, baita lan-kudeaketarekin lotutako administrazio-lanak egiteko ere. Haren naziotasun bereko hainbat pertsonak ez zuten solaskide gisa onartu.
- 2015eko kanpainak administrari marokoar bat kontratatzea, arabiarrekin itzulpen-lanak egiteko.
- Inguruan (Errioxa, Araba...) dauden giza baliabideak handitzea dauden ostatu-plazen urritasunari aurre egiteko. Hartarako, hitzarmenean kontratatutako langileei 40 km baino gehiagora bizi baziren ostatua ematera behartzen zuen klausula aldatu zen, 70 km-ra handituta, uste baikenuen distantzia hura egunero egiteko modukoa zela. Aldaketa hori egin beharra 2014ko kanpainan ikusi zen, nekazari askok Mahaiari kexa ugari helarazi baitzizkioten, hitzarmenaren arabera kontratatutako pertsonari, enpresa kontratatzailearen egoitza sozialetik 40 km baino gehiagora bizi baziren, ostatua eman behar zitelako; horrek, izan ere, inguruko udalerrietan erroldatze ugari (benetan hori bizi ez arren) egitea ekarri zuen.

III. Plan honen aurretiko urteetan beharrei hobeto egokitzen zitzaien aplikazio informatikoa sortzeko helburua ezarri zen. Helburu hori 2015. eta 2016. urteetan gauzatu zen. Gaur egun, hori da erabiltzen dugun lan-tresna, baina dituen aukera guztiak garatzeko daude oraindik.

UAGarentzat 181.500 € (150.000 € gehi BEZa) bideratu ziren programa horretarako, eta horri eutsi egin zaio III. Plana indarrean izan den hasierako hiru urteetan. Informazio-bulegoaren kudeaketa sartu da 2016ko kanpainan UAGaren sasoikako lanari buruzko programan; haren finantzaketa, ondorioz, 187.913 € izan da (155.300 € gehi BEZa).

Lana nabarmen handitu da urteotan. Batetik, kontratatzeko orduan gehiago dira lege-eskakizunak; biderkatu egin dira nahitaezko administrazio-izapideak, eta epe txikiagoak daude horiek egiteko. Bestetik, urteko datuak aintzat hartuta, arreta handiagoa jartzen dute ohiko kanpainetatik kanpoko lanetan. Hori dela eta, denbora gutxiago eskaintzen diete prestakuntza-zereginei, eta uko egin diete sasoikako lanaren arloko sentsibilizazio-proiektuak egiteari.

Hala eta guztiz ere, diru-baliabideak handitu beharko dira, UAGaren ustez, programak bilakaera ona izan dezan, aurreikusten baita 2016an zehaztutako arazoak areagotuko direla 2017an, eta oso zaila izango da programaren eguneroko kudeaketa.

Guardiako Informazio Bulegoari dagokionez, kokapen egokiena UAGaren egoitza dela uste da. Emandako arreten kopurua asko aldatzen da urtearen arabera, bereziki sasoikako langileei dagokienez; izan ere, lan-eskari txikiagoa egoten da kanpainak hainbat eremutan batera egiten badira edo garai horretan erlijio-ospakizunak ere badaude (bildotsaren jaia, ramadana...), baita eguraldiagatik lanak mantsotzen badira edo denbora berean egiten badira, besteak beste.

Nekazariak, berriz, hitzarmenari, bizitokiei buruzko araudiari eta lan-eskaintzei buruzko galderak egiten dituzte gehienbat.

Bulegoa, 2014tik aurrera, hilabete eta erdiz egoten da zabalik (bi hilabetez lehen). Hiru urte igarota, denbora hori nahikoa delakoan gaude, informazio-eskaerak mahats-billetaren hasieran izaten baitira nagusiki eta, gainera, laburragoak ere izan dira azken kanpainak.

Nekazaritza-hitzarmena bultzatzea zegoen III. Planean jasotako ekimenen artean. Helburu hori 2013an bete zen, sasoikako langileen sektorerako hitzarmen kolektiboa sinatu baitzen Arabako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerarako. CCOO, ELA, LAB, UGT eta UAGAren ordezkariak negoziatu eta sinatu zuten (2013ko irailaren 23an ALHAOn argitaratu zen). Hitzarmen hori sinatzea oso gertakari garrantzitsua izan da, jardun-eremu horri buruz berriaz hitzartutako araudirik ez baitzegoen aurretik, eta lan-erloko araudi erkideak ez zuen ematen alderdi guztiak gogobetetzen zituen arau-esparru osorik. Halaber, aurrerapen handia ez ezik, beste tresna bat gehiago ere bada iruzurra saihesteko eta azpikontratazioaren aurka egiteko.

Indarrean dauden arauak betetzen diren egiaztatzeko ikuskapenak areagotzea ere bazegoen ekintzen artean. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak horretarako ezarritako urteko kanpainen barruan jasotzen da nahitaez garatu beharreko gai hori; bi administrazioek batera parte hartzea dakar, orobat, Estatuaren eta EAEren arteko eskumen-banaketari jarraikiz. Ikuskapenak mahats-billetan izan dira batez ere, eta, aldi behin, udaberriko kimaketan, arreta bereziki zalantza zerbitzu-enpresa horietan jarrita.

Iruzurren Postontziaren bitartez (Lan Ministerioaren webgunean dago) herritarrek lan-erloko iruzurrezko jokabideak jakinaraz ditzakete Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak aztertzeko eta, hala dagokionean, iker ditzan. Lan-iruzurra pairatzen duten langileen salaketak bide telematikoz ere aurkez daitezke Gizarte Segurantzaren aurrean, aurrez aurre egiten den modu berean.

Erakundearteko Mahaia sortu zenetik eta Sasoikako Lanaren Arretarako hiru Plan integralen bitartez gogotik egin da lan nekazaritzako sektorea sentsibilizatzeko eta Plana zabaltzeko ekintzetan. Hori horrela, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak, mahaiko idazkari tekniko modura, informazio-gutunak bidali dizkie aldi baterako langileak kontratatu behar dituzten Arabako nekazaritza-ustiatuei (mahastizaintza eta patatagintza). Ekimen horrek oso balorazio ona izan du.

Gipuzkoan eta Bizkaian sasoikako lanaren mahaiak prestatutako informazioa foru-aldundiek helarazi diete hura baliagarri izan zezaketen azpisektoreei, ordezkatzeko dituzten elkartei eta kudeaketa-zentroi.

Bulegoaren berri irratian, kartelen bitartez zein Arabako Foru Aldundiaren *Lurzabal* aldizkariaren bidez ere eman da III. Plan honen lehen urteetan.

2. BIZITOKIAK

- 248/2006 Dekretua aplikatzea. Bizitokien erregistroa.
- Bizitokiak ugaritzea eta hobetzea.

Arabako sasoikako lanaren sektorerako hitzarmen kolektiboa sinatzearen ondorioz, Arabako nekazaritza-ustiategi askok bizitoki erabiltzeko higiezin erregistroan

SASOIKAKO LANAREN ARRETARAKO 2017-2020 PLAN INTEGRALA

inskribatzea eskatu dute III. Plana indarrean egondako denboran, hitzarmenak kontratatzailea behartzen baitu EAEko sasoikako langileen bizitokirako higiezin eta ekipamenduen erregistroan inskribatutako bizitokia ematera.

III. Plana amaitu denean, 94 bizitoki daude baimendu eta inskribatuta; Arabako Errioxako 18 udalerritan, Arabako Lautadako 2 udalerritan eta Muxikan (Bizkaia). Horietan guztietan 968 plaza daude orotara. Horietatik, 13 baino ez zeuden 2013 baino lehen (231 plaza).

Horiek inskribatzeko orduan, behar ziren dokumentu-kontrolak eta *in situ* bisitak egin dira bizigarritasuna bermatzeko eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen zituztela egiaztatzeko.

Arlo horretan izandako aurrerapena gorabehera, gaia are gehiago landu beharra dago, sasoikako langileen ostaturako erabilitako bizitoki guztiak erregistraturik daudela lortzeko. Motibazio bikoitza dago gai horretan lanean jarraitzeko. Batetik, nekazaritzako kanpainetan lan egitera datozen pertsonen lana duintzeko eta, bestetik, lehia desleiala egon ez dadin UAGaren sasoikako lanari buruzko proiektuan parte hartzen duten nekazaritzako ustategiekin; azken horiek erregistratutako bizitokia emateko baldintza betetzen baitute, programan onartzeko ezinbestekoa delako hori.

Horrekin batera, eta erregistroan ez dauden bizitokien bizigarritasun- eta duintasun-baldintzak hobetzearren, **eutsi behar zaio oraindik laguntza-programari**, haiek hobetu edo egokitzeko lanak errazteko zein bizitoki berriak eraikiz plazen kopurua ere handitzeko. Nolanahi ere, laguntza-eskaera gutxi aurkeztu dituzte azken urte hauetan, nekazariak diotenez, bizitokiak urteko egun gutxi batzuetan baino ez dituztelako erabiltzen, eta azken urteetako egoera ekonomikoa zela eta horrelako inbertsioak ez direlako lehentasunezkoak izan.

Edozelan ere, bizitokirik ez egotea arazo handia izan da sasoikako lanaren programarako mahats-bilketa egun gutxiagotan pilatu den urteetan (eguraldiagatik batez ere), orduan langile gehiago kontratatu eta ostatatu behar izaten baitituzte. Horregatik, udalek bizitoki komunitarioak eraiki zituzten bultzatzeko ekimen bat jaso zen III. Planean, udal batzuek baliabide urriak zituztela bagenekien ere. Azken urteak aztertu ondoren, inbertsiorik ez dela izan egiaztatu dugu, eta ekimen hura IV. Planaren proposamenetik kentzea proposatu dugu, ez baita bideragarria.

3. SASOIKAKO LANGILEEI LOTURIKO ADINGABEEN ARRETA

- Sasoikako langileen familietako umeak eskolatzea.
- Baliabideak koordinatzea, hezkuntza-eskaintza egokitzeko.
- Gizarte eta hezkuntza alorreko programak garatzea.

Erantsitako taulan familiarekin batera etortzen diren pertsonen zein umeen kopuruaren bilakaera ikusten da, baita azken horien eskolatzeko-ehunekoa ere:

	2013	2014	2015	2016	
Guztira 233 iritsi dira kanpainan; 164 heldu 69 haur.	Haurrak	98	78	75	69
	Pertsonak guztira	370	269	301	233
	Eskolatuta	41	34	29	29
	Eskolatuta (%)	% 41,84	% 43,59	% 38,67	% 42,03

persona 2016ko horietatik (% 70,4) eta

Horrenbestez, 68 pertsona gutxiago etorri dira familian.

Halere, 2016ko kanpainan erroldatutako 69 adingabe horietatik 31k derrigorrezko eskola-adina (6-16 urte) dutela hartu behar dugu kontuan. Adin tarte horretan eskolatutakoak 22 izan dira, hau da, % 70,96; ehuneko hori nabarmen handitu da 2015ekoaren aldean, derrigorrezko eskola-adinean zeudenen eskolatzea % 55 izan baitzen orduan.

Sasoikako langileen seme-alaben eskolatzea Arabako Errioxako 2 ikastetxetan egin da bereziki: Lantziego Ikastola HLHI eta Eltziego HLHI. Matrikulazioak, 2016ko kanpainan, honako ikastetxe hauetan izan dira: Eltziego eskualdeko ikastetxea (8 mutil eta 2 neska), Guardiako Victor Tapia (2 mutil), Lantziegoko ikastola (4 mutil eta 6 neska), Lapuebla de Labarcako Assa ikastola (4 mutil eta neska 1) eta Guardiako Samaniego institutua (mutil 1 eta 2 neska).

Familiei behar zen informazioa ere eman zaie eskolatzeari, eskola-garraioari zein inguruko baliabide komunitario arruntei buruz.

Nabarmendu behar da, halaber, umeak eskolatzeko interesik erakutsi ez duten familiek zailtasun sozial bereziko familien profila erakusten dutela, jatorriko herrialdean alderrai bizi direnez han ere eskolatu gabe daudela, eta gizarte-esklusio zein bazterkeria maila handia dutela.

Nolanahi ere, familia horiekiko esku-hartzea ez da alde batera utzi; hala, jarraian eta behin eta berriz jo dugu haien bizitokira, eta ikastetxera joan beharra nabarmendu dugu, baita gizarte-hezkuntzako taldeak helarazitako bestelako gomendio eta adierazle ere (bizi-ohitura osasungarriak, zeregin-banaketa, osasuna, garbitasuna, jokabidea, eta abar).

Familiarekin batera daudenak gehienbat Mañuetan bildu ohi dira, eta Villabuena eta Eltziegoren ere izan dira haietako asko. Familia gehienak, oraindik ere, Portugaletik datozela ikusi da.

Sasoikako langileentzat gaitutako azpiegituren arloko gutxieneko gomendioak bete dituzte oro har, eta ez da kokaleku ezegoki berririk antzeman Plana indarrean izan den aldian.

Oraingo egoerara iristeko garrantzitsuak izan dira sentibilizatzeko egindako ekintzak. Horrelakoek udalak hartu dituzte barnean eta, haien bitartez, baita adingabeak dituzten familiak lanera ekartzen dituzten nekazaritzako ustiategiak ere, eta eskolatzearen zein bizitokiak hobetu beharraren garrantzia nabarmendu dute.

Eskolatu gabeko adingabeak antzeman diren herrietako udalak inplikatzeko ekimenari dagokionez, harremanak jartzeko orduan, udalbatzetan aurreko urtearen aldean aldaketak izan direnak lehenetsi dira, gizarte-hezkuntzako esku-hartze programen berri ematearren.

Horrez gain, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak Arabar Errioxa irratian duen Gurasoen Eskolaren irratsaio bat ere egin da sasoikako lanaren arloan kuadrilla horretan egindako esku-hartzeak eta jarduerak jakinarazteko.

Familiarekin batera etorritako pertsonen kopurua gero eta txikiagoa da urtetik urtera, eta baita, ondorioz, etorritako adingabeena ere; Arabako Foru Aldundiak Arabako Errioxako mahats-bilketan urtero sasoikako langileen familiekin egiten dituen gizarte eta hezkuntzako ekimen guztiek eragina izan dute beherakada horretan.

Osasunaren arloan sar ditzakegun hainbat jarduera ere izan dira. Horiek eginda, ez dugu nutrizio-eskasiarik aurkitu, ezta higiene-baldintzen edota jantzien arlokorik ere.

Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zeharka ere landu dugu aztergai dugun aldirian; zereginen berdintasunezko banaketa laguntzearen garrantzia nabarmendu dugu, sexuaren araberako bereizkeria saihesteko, bereziki adingabeen artean.

ONDORIOAK:

Azken batean, III. Plana onartu zenean jarritako helburuak bete direla esan daiteke. Sasoikako langileen sektorerako hitzarmen kolektiboa Arabako nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarako 2013an sinatzea izan da arrakasta nagusia. Hitzarmen horretan, kontratatze baldintzen artean, erregistratutako bizitokia ematea jasotzen du, baldin eta kontratatutako langilea 70 km baino gehiagora bizi bada. Hori dela eta, esan daiteke hitzarmen hori sinatzeak zuzeneko eragina izan duela sasoiko langileak hartzeko higiezin eta ekipamenduen erregistroa handitu zedin (2012an 13 bizileku zeuden erregistraturik –231 plaza–, eta 2016an 94 izan dira –968 plaza–).

Sasoikako langileei buruzko programan parte hartu duten nekazaritzako ustategien kopurua ere handitu da nabarmen (% 24 gehiago). Hazkunde horretan eragin du, besteak beste, bizitokirik ez duten ustategiek programarekin bat egin dutela UAGaren bizitoki-sare komunitarioa erabili ahal izateko. Sentsibilizatzeko ekimenek eta Ikuskaritzak kontrola areagotu izanak ere eragina izan dute igoeran, horren ondorioz ustategiak programa horren barruan lan egiten saiatzen baitira arriskuak saihestearren.

Sasoikako langileei lotutako adingabeentzako jardueri dagokienez, ahalegin handia jarri dugu familia horiei zuzendutako gizarte eta hezkuntzako programetan; hala bada, era horretan etortzen direnak gutxiago izan dira, eta handiagoa, berriz, derrigorrezko eskola-adinean eskolatutakoen ehunekoak.

SASOIKO LANAREN ARRETARAKO IV. PLAN INTEGRALAREN EZAUGARRIAK

IV. Plan Integralak 2017-2020 aldia hartzen du, eta jarraipena ematen dio Erakundearteko Mahaia eratu eta II. Plana onartu zenetik abiatutako lanari. Jardun-ildoak aurreko aldian zeuden berak dira horregatik.

Planak EAE osorako diseinatu badira ere, Arabako lurraldea izan da gehienbat haien jardun-eremua, bereziki Arabako Errioxaren eskualdea. Sasoikako langileen sektorerako hitzarmen kolektiboa Arabako nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarako 2013an sinatzea izan da lorpen garrantzitsuenetako bat.

Gipuzkoari eta Bizkaiari dagokienez, sasoikako lanak ez badu ere Araban adinako garrantzirik hartu, jarraipena egin zaio eta zuzeneko zerikusia duten eragile instituzionalek parte hartu dute, Planean aurreikusitako neurriren baten estaldura zabaldu behar ote zen ere. Horregatik, hasiko dugun aldi honetan Bizkaiko eta Gipuzkoako sasoikako lanaren errealitateari eta neurriei buruzko azterlana egin behar dela ikusi da, era horretan haren egoera ezagutzeko eta, horren arabera, esku-hartze zehatzagoa egin behar den erabakitzeko, baita, hala badagokio, nekazaritzako hitzarmenak egiteko ere.

IV. Planak nekazaritzako sasoikako lanaren gaineko sentsibilizazioa ere jarri nahi du ahalegina; hartarako, ziurtagiri bat bultzatzea planteatu da (Ardoaren aztarna), nekazaritzako ustiatuek sasoikako langileak kontratatzeko orduan izandako jardunbide egokiak, lanaren zein gizartearen arlokoak, aitortzeko.

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako bitokietarako laguntza-deialdiaren jarraipena planteatu da, halaber, eskaintako bizitokien bizigarritasun-baldintzak hobetzeko; era horretan, erraztu egingo da EAEko higiezinaren eta ekipamenduen erregistroan inskribatzea, eta eskumena duen agintaritzak kontrolatu ahal izango ditu.

Adingabeen arretari dagokionez, berriz, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzua ezartzeko lanean arituko gara, zeinak, jardueren artean, erakundearteko koordinazioa eta lankidetzak jasoko dituen.

IV. Planak ondo bereizitako bi zati ditu:

1. Jardun-lerroak, non Planaren irismena egituratzen baita. Planaren indarraldiak (2017-2020) definitzen du atal hau.
2. Planaren ekimenen garapena, etengabe berrikusiko eta eguneratuko diren eranskin gisa. Hauek dira atalak:
 - Planaren jarduerak eta ekimenak biltzen dituzten fitxak: arduradunak, erakundeak, finantzaketa, oharrak (I. eranskina). Hasiera batean Arabari buruzkoak dira fitxak; dena dela, bertako neurrietako batzuk EAE osorako aplikatu litezke, oro har. IV. Planera Bizkaia eta Gipuzkoa pixkanaka gehitzeak gaur egungo fitxak berrikusaraziko ditu, edota fitxa berriak eginarazi, non jarduera eta ekimen berriak, arduradunen esleipena eta behar ekonomiko berrien ebaluazioa bilduko baitira.
 - Erakundeak eta aurrekontuan ekimenak ordaintzera bideratutako zenbatekoak (II. eranskina).

Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Tresna malgu moduan diseinatu da Plan hau, bertan proposatu diren neurrien balioari dagokionez, bai eta bere bideragarritasuna etengabe kontrolatzeko aukera ematen duen tresna moduan ere. Planaren garapenean parte hartzen duten erakundeek zein haren xede diren sektoreen eragile ordezkariak (nekazaritzako enpresarienek eta sasoikako langileenek) egingo dute kontrol hori.

Urtero eta urteko lehenengo seihilekoaren barruan, Erakunde arteko Mahaiak azken ekitaldiaren gaineko Kudeaketa eta Jarduerari buruzko Urteko Txostena egingo du. Halaber aipatuko da abian den urterako aurreikusitako jardun-plana.

Zuzkidura ekonomikoak eta planaren finantzaketa

Estimazio gisa ageri dira I. eranskinean 2017rako hasierako zuzkidura ekonomikoak. II. eranskinean, berriz, aurrekontu-aurreikuspena dator, planaren ekintzak finantzatzen dituzten erakundek antolatuta. Funtsean Arabari dagozkio kopuruak; hala ere, zenbait partida Autonomia Erkidego mailakoak dira.

Planteatzen diren ekintzetako asko erakundeen ohiko jardunaren zati dira (haien aurrekontuetako 1. eta 2. kapituluak). Horrek zaildu egiten du zifrak zehaztea. I. eranskineko fitxetan, hori adierazteko POI akronimoa erabili da (Erakundeen Ohiko Aurrekontua).

JARDUN-LERROAK

1. KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

Duela 15 urte baino gehiago sortu zuen UAGAk Jatorrian Kontratatzeko Programa, nekazaritzako sasoikako lanaren egoera arautzearren. Sasoikako lanaren inguruan izan ohi ziren eta izaten diren Arazo sozial, ekonomiko eta kulturei erantzuteko tresna moduan sortu zen. Helburu nagusietako bat zen eta oraindik bada azpikontratazioaren aurka borrokatzea.

UAGAk abian jarritako programa Sasoikako Lanaren Arretarako I. Planean jasota dago (Eusko Legebiltzarrak 2004ko urriaren 5ean onartuta), eta orain arte onartutako planetan eutsi zaion funtsezko jardueretako bat izan da, oraindik eutsi beharrekotzat jotzen duguna.

Programa abian jarri zen Arabako Errioxako 5 nekazaritza-ustiategirekin eta haren hasierako helburuak lanaren oinarria dira oraindik gaur egun. Parte hartutako nekazaritza-ustiategiak 409 izan ziren 2016an.

Horrez gain, programaren exijentzietako bat da kontratatzaileak etxebizitza duina eskaini behar dietela kontratatuei. Denborak aurrera egin ahala, baina, egoera ekonomiko orokorrak nekazaritzako lan-harremani ere eragin die eta lan-eskaera gehiago dagoela eta eskaintzen den lana, berriz, kolokakoagoa dela sumatu da. Programari lan egiteko modua aldarazi dio horrek guztiak, sektorearen lan-beharrei erantzungo badie ikuspegi soziala bazter utzi gabe.

Bai programan parte hartzen duten ustiategien kopuruak, bai lan egindako lanaldienak, gora egin dute nabarmen urteetan zehar bereziki mahasgintzako kanpainei (bakantzea, udaberriko kimaketa, aldakaitzak kentzea, heldu aurretiko bilketa eta bilketa) dagokienez.

Informazio-bulegoa Guardian eta UAGAreko egoitzan egongo da oraindik, erakunde hori arduratzen baita sasoikako lanaren proiektua kudeatzeaz. Sasoikako nekazarietako doako informazio-telefonoa ere mantenduko da.

Erakundearteko Mahaiak Bizkaiko eta Gipuzkoako txakolinaren, piperraren eta sagarraren kanpaineneko sasoikako lanaren egoera ezagutu beharra planteatu du, gizartearen eta lanaren arloko problematika Arabako Lurralde Historikoan izan denaren antzekoa ote zen ere. Horregatik, IV. Plan honetan aipatutako errealitate horri buruzko azterlana ere jaso da

ekintza berrien artean, hori oinarri hartuta lurralde historiko horietan nekazaritzako hitzarmenak egin behar diren erabakitzeko.

Azken urteotan Lanbiderekin koordinazio-arazoak daudela hauteman da; izan ere, DSBE kobratzen ari zen sasoikako langileak, mahats-bilketan lan egiteko nekazaritzako lan-eskaintza bat onartzen bazuen, hilabete baino gehiagoz behar izaten zuen aipatutako prestazioa atzera jasotzeko, eta horren ondorioz askotan ez zituzten horrelako lanak onartzen. Hori horrela, Lanbiderekiko koordinazioa bultzatzeko ekimen bat ere jaso da, lanik gabe dauden edo DSBE kobratzen ari diren pertsonak sasoikako lanean has daitezen erraztearren.

Komeni da sektorea sentibilizatzeko lanean jarraitzea eta nekazari guztiak legearen barruan eta artekariak saihestuta lan egitearen garrantziaz jabeaztea, areago jakinik haien zerbitzua erabiltzen duten nekazaritzako ustategiek ere badutela erantzukizuna eta haien orde zuzun beharko luketela artekariak sasoikako langileei ez baldin badiete ordaintzen edo bestelako konpromisorik ez badute betetzen.

Lan-ikuskaritzak kanpaina nagusietan gauzatutako ekintzak gorabehera, berean diraute artekariak langileak azpikontratatzeko, haien eskubideak urratzen eta legearen barruan kontratatzen duten nekazariari lehia desleiala egiten.

Frogatzen gero eta zailagoa da azpikontratatzeko artekari haien presentzia, gero eta profesionalagoak baitira, eta eskulana lagatzen duten zerbitzu-enpresa moduan agertzen baitira.

Kontratazio-prozedura behar bezala egiten dela eta nekazaritza arloko enpresek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari egiten dizkieten kotizazioak ere egokiak direla eta benetan lan egindako lanaldiekin bat datozela egiaztatzeko, halaber, Laneko Ikuskaritzak eta Diruzaintzak elkarrekin trukatu behar lituzkete beren datuak eta ustategietako azalerari eta ekoizpenari buruzko informazioa eduki.

Aurrekoagatik guztiagatik beharrezkoa da ikuskatzei eustea eta haiek ugaritzea, mahasgintzako beste kanpainetan ezarriz, bereziki Arabako Errioxan diharduten zerbitzu-enpresak ofizioz ikuskatzen jarraituta, jakina baita legez sortuak izanagatik eta publizitatea egiteko askatasuna edukiagatik ere mafiekin harremana dutela.

Lan Ikuskaritzaren nahiz Ertzaintzaren –egokitzen zaionaren arabera– aurrean salaketak jartzen errazteko mekanismoak ezartzea ere komeni da. Ildo horretatik, salaketa anonimoen postontzia abian jartzeko lanean ari gara.

Lanerako prestakuntza-programak mantentzea sasoikako biztanleentzat zein kontratazioak egiten dituzten nekazariarentzat, eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestatzea eta aholkatzea; horien helburua kontratazio-baldintzak hobetzea da.

KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEAREN INGURUKO HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Kontratazioko irregulartasunak eta legea bete ez dadin saihestea, laneko arriskuen prebentzioa bereziki nabarmenduta.
- Langileak baldintza duinetan kontratatzea eta azpikontratazioa saihestea.
- Lanera joaten diren pertsonen ahalik eta lanaldi gehien ziurtatzen saiatzea.

- Ahalik eta kanpaina normalizatuenak diseinatzea (datak, epeak, langile kopurua eta kontratatzaileen arteko doikuntza).
- Bizitoki duinak eta gutxieneko bizigarritasun-baldintzak dituztenak ziurtatzea, kolokatasun-egoerak saihestuta.
- Landa-mailako etorkinak gizarteratzea, egoera hori normalizatuz eta diskriminazioak saihestuz.

GARATU BEHARREKO JARDUERAK ETA EKIMENAK

1.1. Sasoikako langileen kontratazioa erraztea

- Nekazaritzako sasoikako lanaren proiektua mantendu eta bultzatzea.
- Sasoikako lanaren proiektua kudeatzeko programa informatikoa garatzea.
- Arabako Errioxako informazio-bulegoaren funtzioak eta haren kokapena mantentzea, baita sasoikako langileei doako informazioa emateko telefonoa ere.
- Bizkaiko eta Gipuzkoako sasoikako lanaren errealitateari eta neurriari buruzko azterlana egitea.
- Lanbidearekiko koordinazioa bultzatzea lanik gabe dauden edo DSBE kobratzen ari diren pertsonak sasoikako lanean has daitezen erraztearren.

1.2. Nekazaritzako sasoikako lanari buruz sentsibilizatzea

- Nekazariak sentsibilizatzea nekazaritzako sasoikako lanarekin zerikusia duten gaietan.
- Arduradun erlijiosoekiko harremanak bultzatzea sasoikako langileen lan-baldintzak errazteko.

1.3. Indarrean dauden arauak betetzen diren egiaztatzeko ikuskapenak

- Sasoikako langileen lan-baldintzen gaineko ikuskapenak areagotzea.
- Salaketak segurtasun-neurri seguruekin jar ditzaten errazteko mekanismoak ezartzea, betiere salatzailerak seguru atxikitzeke neurriekin batera; Guardiako bulegoan egin ahal izatea.

1.4 Lanerako prestakuntza bultzatzea

- Lanerako prestakuntza-programak diseinatzea sasoikako langileentzat eta nekazari kontratatzaileentzat.

1.5. Sasoikako lanaren nekazaritza-hitza

- Arabako nekazaritza-hitzarmena eguneratzea.
- Gipuzkoan eta Bizkaian hitzarmenak gauzatzeko aukera aztertzea.

ERAKUNDE ARDURADUNAK ETA INPLIKATUAK

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EJ.
- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztza.
- UAGA.
- HAZI.
- CCOO eta UGT.
- Arabako Errioxako Kuadrilla.
- Ertzaintza.

2. BIZITOKIAK

III. Plana indarrean izan den denboran handitu egin da erregistratutako bizitokien kopurua, bi arrazoi hauengatik batez ere: lehena, eskatutako gutxieneko baldintzak aldatu direlako (ez dira horren zorrotzak); eta bigarrena, nekazaritzako hitzarmena sinatzeagatik, zeinak nekazaritzako ustiategi kontratatzailea erregistratutako bizitokia ematera behartzen zuen.

Hori dela eta, higiezinak edo bizitokiak baimendu eta erregistratzeko eskaera bultzatzeko ekimena jarraitzea planteatu da, bizigarritasun-baldintza egokiak dituzten plazen kopuru nahikoa izatearren.

Orain arte gauzatutako jarduera guztien ondorioz, handi samarra da erregistratutako bizitokien kopurua (100 inguru), hori dela eta, jardueren artean horien aldi behingo jarraipena egitea jaso da; jarraipen hori kanpainen aurretik egingo da, erregistroan inskribatzeko kontuan hartutako baldintzei eusten dietela egiaztatzeko.

BIZITOKIEI BURUZKO HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Bizitoki gisa erabilitako higiezinak eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela lortzea.
- Bizigarritasun eta duintasun nahikoa duten plaza nahikoak izatea bizitokietan

GARATU BEHARREKO JARDUERAK ETA EKIMENAK

Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integralaren baitan, honako jarduera hauek proposatzen dira:

2.1. Azaroaren 28ko 248/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 29ko 101/2012 Dekretuaren bidez aldatua, aplikatzea

- Sasoikako langileentzako higiezinak eta/edo ekipamenduak baimentzeko eskabideak aurkeztea sustatzea.
- Erregistratutako bizitokien aldi behingo jarraipena egitea

2.2. Bizitokiak ugaritzea eta hobetzea

- Sasoikako langileentzako bizitokietarako laguntza-programa atxikitzea

ERAKUNDE ARDURADUNAK ETA INPLIKATUAK

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
- UAGA.
- Arabako Errioxako Kuadrilla.

- Arabako Foru Aldundia, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez.

3. SASOIKAKO LANGILEEI LOTURIKO ADINGABEEN ARRETA

Familiarekin batera sasoikako lana egitera mugitzen diren adingabeen bizi-baldintzak eta eskolatzeko-maila hobetzearen lan luzea egin da azken urteetan. Arlo horretan, eztabaidaekin dira egindako aurrerapenak, hala nola familiek ikastetxeetan zuzenean egindako matrikula kopurua pixkanaka areagotzea, ikastetxe horietako laguntza-irakasleen kopurua eta haien inplikazio berezia, besteak beste. Emaitzak aintzat hartuta, eutsi egingo zaie azken urteotan egindako ekintzei.

Honako arlo hauek landu beharra dagoela ere ikusi da: babes-gabezia duten sasoikako familiak antzematea, ondoren oinarrizko gizarte-zerbitzura bideratzeko; egoera ahulean dauden familiei gizarte-laguntza ematea, haien premiei erantzutearren, eta, azkenik, desberdintasunak eta genero-indarkeria identifikatzea.

Hori guztia gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzuaren bitartez egingo da, zeinak, ekintzen artean, erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren jasoko dituen.

Adingabeak Artatzeko Batzorde honek Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala abian jartzeari begira helburu konkretu eta jarduera hauek proposatzen ditu:

ADINGABEEN ARRETARI BURUZKO HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Gizarte eta hezkuntzako programen lana adingabeekin batera etorritako familiengan kontzentratzea.
- Sasoikako familia langileen umeen eskolatzeko-maila areagotzea.
- Erakundearteko koordinazio eta lankidetzaren aurrera egitea.

GARATU BEHARREKO JARDUERAK ETA EKIMENAK

3.1. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzua ezartzea: erakundearteko koordinazio eta lankidetzaren

- Adingabeak eskolatzeari buruz legeek diotenaren eta hori betetzeko dauden baliabideen berri ematea familia horiei.
- Umeekin doazen sasoikako langileen familien zentsuak eguneratzea.
- Nekazaritzako ustiatzei lanean dituzten familien adingabeak nahitaez eskolatzeari buruzko informazioa ematea.
- Adingabeen eskolatzeari jarraipena egitea.
- Babes-gabezia duten sasoikako familiak antzematea oinarrizko gizarte-zerbitzura bideratzeko.
- Egoera ahulean dauden familiei gizarte-laguntza ematea haien premiei erantzutearren.
- Desberdintasunak eta genero-indarkeria identifikatzeko lana egitea.

- Eskolatu gabeko adingabeak aurkitu diren udalerrietako udalak inplikatzeko nekazaritzako ustiatzietan esku har dezaten eta eskolatzearen kudeaketa erraz dezaten.
- Benetan eskolatzeko jarduerak koordinatzea: garraioa, eskolako jantokia, bekak...
- Ohitura egokiak bereganatzen eta ikasgelan integratzen lagun lezaketan ekintza normalizatuak garatzen laguntzea, higienari, norbere txukuntasun eta garbitasunari eta elikadurari dagokienez.
- Ikastetxeekin harreman normalizatuak izan ditzaten aholkua eman familiei, zuzeneko matrikulazioa irmo errotu dadin.
- Seme-alaben tutoreekin zuzeneko harremanak izan ditzaten aholkua eman familiei, haien hezkuntza-bilakaera zein den jakin dezaten.
- Udalak sentsibilizatzea gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzua garatzen inplikazio aktiboa izan dezaten.
- Erakundearteko mahaiko idazkari teknikoari antzemandako bizitoki desegokien berri ematea informazio-bulegoaren eta dagokien udalen bitartez, behar den bezala jardun dezan.

3.2. Hezkuntza-eskaintza egokitzea

- Ikasgela behar diren langile laguntzailez hornitzea.
- Eskola-mapak diosenari eustea zonei eta ikastetxeei dagokienez.
- Garraio-zerbitzuak egokitzea.
- Jantoki-zerbitzuak egokitzea.

TARTEAN DIREN ERAKUNDEAK ETA AURREKONTU-ZUZKIDURA

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Arabako Lurralde Hezkuntzako Ordezkaritzaren bitartez.
- Cáritas.
- Arabako Foru Aldundia, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez.
- Guardia-Arabako Errioxako Kuadrila.
- Udalak.

**ERANSKINA I: PLANEAN JASOTAKO JARDUERAK ETA EKIMENAK:
ARDURADUNAK, TARTEAN DIREN ERAKUNDEAK, FINANTZAKETA ETA
ADIERAZLEAK**

Oharra: Eusko Jaurlaritza (EJ) esaten denean, gaian eskumena duen Saila, ekimen horiek antolatzeko ardura duena, ulertu behar da. Hauek dira Plan honetan eskumenak dituzten sailak:

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
- Lan eta Justizia Saila.
- Hezkuntza Saila.

Oharra: Lurralde Historiko bateko FA aipatzen denean ardura duen sailak gauzatuko dituzten jarduerak horiek. Hauek dira Plan honetan eskumenak dituzten foru-departamentuak:

- Nekazaritza Saila.
- Gizarte Zerbitzuen Saila.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA				
1.1 JARDUERA SASOIKAKO LANGILEEN KONTRATAZIOA ERRAZTEA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
1.1.1. NEKAZARITZAKO SASOIKAKO LANAREN PROIEKTUA MANTENDU ETA BULTZATZEA.	EJ	UAGA/HAZI	188.385 €	<ul style="list-style-type: none"> • Sasoikako lanaren programan parte hartzen duten ustiategiaren kopurua handitzea. • Zalantzazko legezketasuna duten zerbitzu-enpreekin lan egiten duten ustiategiak identifikatzea eta proiektuan sar daitezela laguntzea.
1.1.2. SASOIKAKO LANAREN PROIEKTUA KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA GARATZEA.	EJ	UAGA/HAZI	15.000 €	<ul style="list-style-type: none"> • III. Planean diseinatutako programa informatikoan jasotako funtzionalitateak garatzen jarraitzea.
1.1.3. ARABAKO ERRIOXAKO INFORMAZIO-BULEGOAREN FUNTZIOAK ETA HAREN KOKAPENA MANTENTZEA, BAITA SASOIKAKO LANGILEEI DOAKO INFORMAZIOA EMATEKO TELEFONOA ERE.	EJ	UAGA/HAZI	1.1.1 EKIMENAREKIN BATERA	<ul style="list-style-type: none"> • Guardiako bulegoa kudeatzea. • Bulegoaren eta haren zerbitzu-kartaren berri ematea. • Kanpainan doako telefonoa mantentzea. • Informazio-diptikoak eguneratu eta banatzea.
1.1.4. BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO SASOIKAKO LANAREN ERREALITATEARI ETA NEURRIARI BURUZKO AZTERLANA EGITEA.	EJ	BFA/GFA	ZENBATEKOA ZEHAZTU GABE	<ul style="list-style-type: none"> • Azterlana egitea.
1.1.5. LANBIDEAREKIKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA LANIK GABE DAUDEN EDO DSBE KOBRAZTEN ARI DIREN PERTSONAK SASOIKAKO LANEAN HAS DAITEZEN ERRAZTEARREN.	EJ	LANBIDE/UAGA	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Urtean bi bilera egitea; lehena kanpainari ekin aurretik, eta bigarrena emaitzak baloratzeko.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA				
1.2 JARDUERA NEKAZARITZAKO SASOIKAKO LANARI BURUZ SENTSIBILIZATZEA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
1.2.1 NEKAZARIAK SENTSIBILIZATZEA NEKAZARITZAKO SASOIKAKO LANAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAJETAN.	EJ/AFA	UAGA	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-gutunekin ustiategi guzti-guztietara iristea. • <i>Sustraia</i> aldizkaria: artikulua 1 urtean. • Sustrai programa: programa 1 urtean. • <i>BERBERANA</i> aldizkaria: artikulua 1 urtean. • EJren weba erabiltzen duten bisitariak handitzea.
1.2.2 ARDURADUN ERLIJIOSOEKIKO HARREMANAK BULTZATZEA SASOIKAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ERRAZTEKO.	EJ	UAGA	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Arduradun erlijiosoren batekin harremanetan jartzea. • Sentsibilizatzeko tailerren bat egitea. • BILTZEN (begiratu).

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA				
1.3 JARDUERA INDARREAN DAUDEN ARAUAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEKO IKUSKAPENAK				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
1.3.1 SASOIKAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZEI BURUZKO IKUSKAPENAK AREAGOTZEA.	EJ	EJ/Lan Ikuskaritza	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Mahasgintzako kanpaina guztietan ikuskapenak egitea, mahats-bilketan bereziki, eta gainerakoetan aldian behin baina etenik gabe, eredu gisa balio dute eta. (Ikuskaritzak zehaztuko du kopurua) • Ikuskapenetan sasoikako langileen bizitokia ere egiaztatzea. • Mugakide diren autonomia-erkidegoekin elkarlanean aritzea, Arabako eragileek, ustategia gure lurraldera bakarrik mugatzen ez denean, lan-hitzarmena bizitokiei dagokienez betetzen duten egiaztatu ahal izateko.
1.3.2 SALAKETAK JARTZEN ERRAZTEKO MEKANISMOAK EZARTZEA, BETIERE SALATZAILEA SEGURU ATXIKITZEKO NEURRIEKIN BATERA. Guardiako bulegoan egin ahal izatea.	EJ	UAGA/Segurtasun Saila/Lan Ikuskaritza	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Izan litezkeen salatzaile guztiei behar den informazioa ematea salaketak jar ditzaten. • Salaketa anonimoen postontzia abian jartzea. • Zerbitzua Guardiako bulegoaren, webgunearen, aldizkariaren eta abarren bitartez zabaltzea.

SASOIKAKO LANAREN ARRETARAKO 2017-2020 PLAN INTEGRALA

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA				
1.4 JARDUERA LANERAKO PRESTAKUNTZA BULTZATZEA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
1.4.1 LANERAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK DISEINATZEA SASOIKAKO LANGILEENTZAT ETA NEKAZARI KONTRATATZAILEENTZAT.	EJ	UAGA/HAZI	4.000 € (LGENFek % 80a finantzatuta)	Udaberriko kimaketari buruzko 5 ikastaro. Prestakuntzako beharren % 100a estaltzea.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA				
1.5 JARDUERA SASOIKAKO LANAREN NEKAZARITZA-HITZARMENA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
1.5.1 ARABAKO NEKAZARITZA-HITZARMENA EGUNERATZEA.	Gizarte-eragileak/Nekazaritzako lanbide-erakundeak/Sindikatuak	Gizarte-eragileak/Nekazaritzako lanbide-erakundeak/Sindikatuak		Arabako nekazaritza-hitzarmena eguneratu eta zabaltzea.
1.5.2 GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN HITZARMENAK GAUZATZEKO AUKERA AZTERTZEA.	Gizarte-eragileak/Nekazaritzako lanbide-erakundeak/Sindikatuak	Gizarte-eragileak/Nekazaritzako lanbide-erakundeak/Sindikatuak		Hitzarmena egitea komeni den aztertzea 1.1.4 puntuan proposatutako azterlana oinarri hartuta.

2. LAN-EREMUA: BIZITOKIAK				
2.1 JARDUERA AZAROAREN 28KO 248/2006 DEKRETUA APLIKATZEA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
2.1.1. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO HIGIEZIN NAHIZ EKIPAMENDUAK BAIMENTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA SUSTATZEA.	EJ	EJ/GOFE/ UDALAK/ ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Bizitokiei buruzko Dekretuaren datuak barne hartzen dituen triptikoa egitea. • Koordinazio handiagoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin eta Arabako Errioxako Udalekin erregistratuta ez dauden bizitokien egoera ezagutzeko. • Erregistratuta ez dauden bizitokiak legeztatzeke dauden tresnak aztertzea. • Upategi handiekin harremanetan jartzea haien bizitokien egoera ezagutzeko eta, hala badagokio, Erregistroan inskriba ditzaten bultzatzeko.
2.1.2. ERREGISTRATUTAKO BIZITOKIEN ALDIAN BEHINGO JARRAIPENA EGITEA.	EJ	EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Urtero erregistratutako bizitokien % 10aren jarraipena egitea eskatutako baldintzei eusten dieten egiaztatzeke.

2. LAN-EREMUA: BIZITOKIAK				
2.2 JARDUERA BIZITOKIAK UGARITZEA ETA HOBETZEA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
2.2.1 SASOIKAKO LANGILEENTZAKO BIZITOKIETARAKO LAGUNTZA-PROGRAMA ATXIKITZEA.	EJ	EJ	70.000 €	<ul style="list-style-type: none"> • Bizitokien zein plazen kopurua % 5 handitzea urtero.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEKOENTZAKO ARRETA				
3.1 JARDUERA HEZKUNTZA ETA GIZARTEKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA EZARTZEA: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
3.1.1 ADINGABEAK ESKOLATZEARI BURUZ LEGEEK DIOTENAREN ETA HORI BETETZEKO DAUDEN BALIABIDEEN BERRI EMATEA FAMILIEI.	AFA	Udalak/EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Iritsitako familia guztiak aurkitzea eta interesatzen zaizkien gaien berri ematea.
3.1.2. UMEEKIN DOAZEN SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIEN ZENTSUAK EGUNERATZEA.	AFA	AFA	18.000 €	<ul style="list-style-type: none"> Iritsi diren familia guztiak zenbatzea, haien kideak sexuaren arabera berezita.
3.1.3. NEKAZARITZAKO USTIATEGIEI LANEAN DITUZTEN FAMILIEN ADINGABEAK NAHITAEZ ESKOLATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.	AFA	UDALA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Familiak hartzen dituzten ustiategiak bisitatzea adigabeen arloko betebeharren berri emateko.
3.1.4. ADINGABEEN ESKOLATZEAREN JARRAIPENA EGITEA.	AFA/EJ	AFA/EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak koordinatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzarekin. Kanpaina bakoitzean jarraipen-txostena egitea.
3.1.5 BABES-GABEZIA DUTEN SASOIKAKO FAMILIAK ANTZEMATEA OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZURA BIDERATZEKO.	AFA	CÁRITAS - UDALAK - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Herrietara egindako bisitetan babes-gabeziako egoerarik dagoen ikustea eta, hala badagokio, horiek bideratzea.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEKOENTZAKO ARRETA				
3.1 JARDUERA HEZKUNTZA ETA GIZARTEKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA EZARTZEA: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
3.1.6 EGOERA AHULEAN DAUDEN FAMILIEI GIZARTE-LAGUNTZA EMATEA HAIEN PREMIEI ERANTZUTEARREN.	AFA	CÁRITAS	POI	<ul style="list-style-type: none"> Familiekin batera profesionalak egotea, familia horiek beren beharren arabera ekimen integratuak egin ditzaten.
3.1.7 DESBERDINTASUNAK ETA GENERO-INDARKERIA IDENTIFIKATZEKO LANA EGITEA.	AFA	EJ/CÁRITAS - UDALAK - GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Desberdintasunak eta/edo genero-indarkeria identifikatzea eta dagokien zerbitzuei haien berri ematea.
3.1.8 ESKOLATU GABEKO ADINGABEAK AURKITU DIREN UDALERRIETAKO UDALAK INPLIKATZEA NEKAZARITZAKO USTIATEGIETAN ESKU HAR DEZATEN ETA ESKOLATZEAREN KUDEAKETA ERRAZ DEZATEN.	AFA	UDALAK - GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Udalei eskolatu gabeko adingabeak antzeman direla jakinaraztea eta jarduerak koordinatzea.
3.1.9 BENETAN ESKOLATZEKO JARDUERAK KOORDINATZEA: GARRAIOA, ESKOLAKO JANTOKIA, BEKAK...	AFA	EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Erakundearteko elkarlana jarraitzea.
3.1.10 OHITURA EGOKIAK BEREGANATZEN ETA IKASGELAN INTEGRATZEN LAGUN LEZAKETEN EKINTZA NORMALIZATUAK GARATZEN LAGUNTZEA, HIGIENEARI, NORBERE TXUKUNTASUN ETA GARBITASUNARI	AFA	EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxe antzemandako bakoitzarekin beharrak koordinatzea.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEKOENTZAKO ARRETA				
3.1 JARDUERA HEZKUNTZA ETA GIZARTEKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA EZARTZEA: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
ETA ELIKADURARI DAGOKIENEZ				
3.1.11 FAMILIEI AHOLKUA EMAN, IKASTETXEEKIN HARREMAN NORMALIZATUAK IZAN DITZATEN ETA ZUZENEKO MATRIKULAZIOA IRMO ERROTU DADIN	AFA/EJ	AFA/EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Familien eta ikastetxeen arteko harremana sustatzea.
3.1.12 SEME-ALABEN TUTOREEKIN ZUZENEKO HARREMANAK IZAN DITZATEN AHOLKUA EMAN FAMILIEI, HAIEN HEZKUNTZA-BILAKAERA ZEIN DEN JAKIN DEZATEN.	AFA/EJ	AFA/EJ	POI	<ul style="list-style-type: none"> Irakasleekin zuzeneko harremana izateko hezkuntzaren arloko aholkua mantentzea.
3.1.13 UDALAK SENTSIBILIZATZEA GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA GARATZEN INPLIKAZIO AKTIBOA IZAN DEZATEN.	AFA	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Tokiko erakundeekin programa koordinatzea, errazago ezarri ahal izateko.
3.1.14 ERAKUNDEARTEKO MAHAIKO IDAZKARI TEKNIKOARI ANTZEMANDAKO BIZITOKI DESEGOKIEN BERRI EMATEA INFORMAZIO-BULEGOAREN ETA DAGOKIEN UDALEN BITARTEZ, BEHAR DEN BEZALA JARDUN DEZAN.	AFA	AFA	POI	<ul style="list-style-type: none"> Antzemandako egoeren berri ematea.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEKOENTZAKO ARRETA				
3.2 JARDUERA HEZKUNTZA ETA GIZARTEKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA EZARTZEA: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA				
EKIMENAK	ARDURADUNA	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	2017KO FINANTZAKETA	HELBURU OPERATIBOA
3.2.1 IKASGELA BEHAR DIREN LANGILE LAGUNTZAILEZ HORNITZEA.	EJ	AFA	POI	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaera osoari erantzutea.
3.2.2 ESKOLA-MAPAK DIOENARI EUSTEA ZONEI ETA IKASTETXEEI DAGOKIENEZ.	EJ	AFA	POI	
3.2.3 GARRAIO-ZERBITZUAK EGOKITZEA.	EJ	AFA	POI	
3.2.4 JANTOKIKO ZERBITZUAK EGOKITZEA.	EJ	AFA	POI	

**II. ERANSKINA. ERAKUNDEAK ETA AURREKONTUAN EKINTZAK ORDAINTZERA
BIDERATUTAKO ZENBATEKOAK**

2017KO EKITALDIA

ERAKUNDEA	EKINTZA/KONTZEPTUA	AURREKONTUA (€)
AFA GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA	Gizarte eta hezkuntza alorreko programak garatzea	18.000
EJ EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	Bizitokiak sortzen eta hobetzen laguntzea	70.000
	Lezako bizitokia mantentzea	6.000
	Kontratazio-programa eta informazio-bulegoa	188.385
	Heziketako programak	4.000 (*)
	Aplikazio informatikoa	15.000
GUZTIRA		301.385
(*) LGENFek % 80a finantzatu du		